

## LAB sindikatuak Hezkuntza sailarekin sinatutako akordio laboraletik eratorritako lehenengo ituna sinatu du Sukalde eta Garbiketako kolektiboan

**Ekoizpenagatiko kontratuaren iraupenaren luzapena jasotzen du, bakante berrien sorreraren eta adinagatiko jardunaren murrizketaren baldintzapean**

2023ko ekainaren 1ean, EAEko Hezkuntza Legea garatzeko langileen lan-baldintzak hobetzeko sindikatuen eta Hezkuntza Sailaren arteko akordioa sinatu zuen LABek.

Akordio honetan adierazitako konpromisoak dagozkion negoziazio-mahaietara eramango direla sinatu zuten, bertan berretsiak izan zitezten, dagozkien gehiengoak lortu ezker. Kolektibo feminizatu eta prekarizatuenetik hasita, akordioa lortu du orain LABek, gehiengoak sindikatuaren proposamena babestu duelako.

Akordioan jaso zen, besteak beste, honako hauek aztertu eta adostuko direla: lanpostuak mantentzeko eta esleitzeko irizpideak, 60 urtetik gorakoentzako gazteberritze planak eta behin-behinekotasuna %5tik igoko ez dela bermatzeko neurriak hartzea.

LABek Hezkuntza Saileko kolektibo feminizatu eta prekarizatuenean lortu du lehenengo akordioa. Azkenengo Lan Erreformaren ondorioz 6 hilabetetara mugatuta dauden produkzioagatiko kontratuak sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez 10 hilabetera luzatzeko proposamena egin zuen administrazioak aurreko ikasturtean. Bada, hori aprobetxatuz, negoziazioa mahai sektorialera ekarri eta akordioa erdietsi du LABek.

Abian dugun Hitzarmen Kolektiboaren negoziazioaren kaltetan izan gabe, eta salbuespenez, ekoizpen gorabeherengatiko kontratuak ekainaren 30era arte hitzartu ahal izango dira, baldin eta jankideentzako edota garbiketako metrajeentzako gorabeherak ekar ditzakeela aurreikusten ez bada.

Dagoeneko eginda dauden 29 kontratuen luzapenak jada tramitatu dituzte.

### **Sukalde eta garbiketako langileen lanpostuen zerrendan sartuko diren egiturazko bakanteak sortuko dira**

- Sukalde eta Garbiketako langile propioen plantilla erregularizatuko du urtero.
- Lanpostu horiek lanpostuen zerrendan (LPZ) agertuko dira kategoria horietan, eta ordeztu egingo dituzte ekoizpenaren beharregatik egindako kontratazioak.
- Ekoizpenaren beharregatik kontratua egin den ikastetxe batean, hurrengo ikasturterako behar hori mantenduko dela aurreikusten baldin bada, LPZn agertuko da.
- 2021-22, 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetan ekoizpenaren beharregatik 20 orduko edo gehiagoko kontratuak izan dituzten ikastetxeetan egiturazko bakanteak sortuko dira 2024-25 ikasturtean.
- Hiru ikasturteetan betetako bakanteak lan-eskaintza publikoetan deituko dira. Behin-behinekotasun tasa gehienez %5ekoa izango da.

**60 urte baino gehiago dituzten sukaldeko eta garbiketako langileei laneko jarduna herenean murriztuko zaie**

60 urte bete duten finkoei zein bakantean dauden langileei prebentzio zerbitzuak dei egingo die egokitzapen espezifikoak behar dituen jakiteko. Egokitzapen horietan lanaldia herenean murrizteko neurriak ezar daitezke, murrizketa hau ordaindua eta ordezkaturia izango da.

Egun sukaldean lan egiten duten 120 langileri eta garbiketan diharduten 94ri, guztira 214ri, eragingo die neurri honek.

Gauzak horrela, Hezkuntza sailari Akordio laborala mahai negoziatzaileetara eramaten jarraitzea eskatzen dio LABek, eta langileen lan baldintzak hobetzeko proposamenak egiten jarraituko du kolektiboz kolektibo.

**Euskal Herrian, 2023ko azaroaren 16an**